

## ezagutzen al duzu Donostia?

### Lukainkategi

Lukainkategi baserria Lugaritz auzoan dago. Izen baino izengoiti den toponimo hau era honetan ezagutzen da gutxienez joan den mendeko erdialdeaz geroztik. 1860. urtean hiriko Udalak emandako mandatu bat betetzeko Lorenzo Alzate hiriko idazkariak zenbatu zituen Udal dermioko baserri guztiak eta zerrenda horretan agertzen da «*Lukainkatégui*» Lugaritz auzoko 32. zenbakiarekin.

Noiztik datorkio izen bereizi hau? Gure etxean entzuna du «*Lukainkatégui*» izenaren zergaitia: aitonak kontatzen zuen zeinen pobreak ziren Donostiako baserriarrak, ia denak **maisterrak**\* ziren. Urte txarra baldin bazen, uzta ez bazen biltzen, ez zen jatekorik izaten eta gosea ez pasatzen-



ren etxean zegoena jan behar. Eta honela, aipatu baserri honetara Ostiral Santu egunez bisitari batzuk heldu ziren eta bertako familia lukainka jaten harrapatu! Noiz eta kristau Garizumako egun nagusienean, barau eta haragi-jatea zinez debeka-

tuta zegoen egunean! Haulik aurrera «*Lukainkatégui*» izenarekin gelditu omen zen etxe hura. Dena dela baserri honek propietateko eskritoretan «*Colon-Echeberri*» du izena, baina gaur egun ere «*Lukainkatégui*» izenarekin ezagunagoa da.

\***Maisterra:** Etxea alokatzen duena. Mendehonen hasieran Donostiako Udal dermioan zeuden 750 baserrietatik %90 baino gehiago maistergopean zeuden.

JOSU TELLABIDE



**Diseinua • Altzariak • Konplementuak**

Prim, 6 • Tfnoa.: 43 01 95 • Donostia


Antzinako arropen salerosketa



Era guztietako  
ohialak euskal esaera  
ederrekin  
estanpatuak

PRIM, 31 - Tfnoa (943) 464134

SUKALDE



ALTZARIAK

sukaldeak galeriak

**GIPUZKOA**

T3.  
3DIEGA



GIPUZKOA PLAZA. 4 ☎ 42 35 65